

# Bizkaian elikagaien bidez transmititutako gaixotasunei buruzko datuak (2018)

Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko Osasun Publikoaren Zuzendariordeak eginiko Zaintza Epidemiologikoaren Memorian laburtuta daude 2018an zehar Bizkaian jakinarazitako gaixotasun nagusiak. Horien artean, hauek nabarmendu nahi ditugu:

## Elikagaien bidezko toxiinfekzioak

### Campylobacter

**Elikagaien bidez transmititutako gaixotasunen lehen kausa da Bizkaian eta EAEn.**

Guztira, Campylobacterren ondoriozko 1.241 infekzio deklaratu ziren (108,79/100.000). Campylobakteriosiak gorakada handia izan zuen 2018an (% 53koa), 2017arekin alderatuta, eta 1994tik izan den isolamendu kopuru handiena erregistratu zen.

### Salmonella

2018an 284 kasu erregistratu ziren (24,28/100.000), eta 2017tik behera egin zuen kasuen kopuruak. Detektatutako kasuen % 37 adingabeei zegozkien. Andui gehienak *S. thyphimurium* izan ziren (% 67), eta horien atzetik *S. enteritidis* (% 14), zeina gero eta maizago agertzen baita.

### Errotabirusa

2018an 202 errotavirus deklaratu ziren (17,71/100.000); alegia, 2017an baino pixka bat gutxiago.

Ohikoa den moduan, deklarazioen % 91 urteko hilabete hotzenetan izan ziren, eta epidemia martxoan iritsi zen goreneko puntura. Deklaratutako kasuen % 84tan, kaltetuak hiru urtetik beherakoak ziren.

### Listeria

Listeriosiaren hamabi kasu deklaratu ziren, eta kaltetuen batezbesteko adina 74 urte zen. Kasu guztietan, kaltetuek arrisku-faktoreren bat zuten (minbizia eta patologia kronikoak).

## Elikagaien bidezko toxiinfekzioen agerraldiak

2018an, elikagaien bidezko edo pertsona batetik bestera transmititutako toxiinfekzioen 16 agerraldi ikertu ziren (guztira 444 pertsonari eragin zieten).

## Non gertatu ziren agerraldiak?

Ikertutako agerraldien erdia adinekoen edo desgaituen egoitzetan izan ziren, eta pertsona batetik bestera transmititu ziren. Zortzi agerraldietako zazpitan, eragilea norobirusa izan zen. Gainerako agerraldi gehienak ostalaritzako establezimenduetan edo etxe partikularretan gertatu ziren, eta agerraldi bat ikastetxe batean.

## Zein izan ziren agerraldien eragileak eta tartean ziren elikagaiek?

Bi kasutan, birusaren transmisio-ibilgailuak norobirusarekin kutsatutako ostrak eta muskuiluak izan ziren.

Etxe batean laboratutako arrozaren iruzurrezko salmenta bat detektatu zen, zeinak agerraldi bat sortu baitzuen, 28 pertsonari eragin ziena. Arroz horretan toxina estafilokoziko bat eta *Bacillus cereus* aurkitu ziren. 2018an ez zen *Salmonellaren* ondoriozko agerraldirik erregistratu, eta hori aipatzekoa da, aurreko urtean hamar agerraldi ikertu baitziren.

## Elikadurarekin loturarik ez duten zoonosiei buruzko beste datu interesgarri batzuk

Transmisio zoonotikoko gaixotasunei dagokienez, **Q sukarrak** behera egin zuen 2018an, azken urteetako agerraldi guztien ondoren.

23 kasu erregistratu ziren (2,02 /100.000); horietatik, zazpi kasu 2014an ere **Q sukarraren** agerraldi bat izan zuen enpresa batean agertu ziren, nahiz eta oraingoan eraso-tasa askoz ere baxuagoa izan zen.

## Dieta eta osasuna

Hiru fruta- eta barazki-anoa baino gutxiago jaten dituzten gizonen proportzioa % 56koa da; alegia, emakumeena baino handiagoa (% 43).

Gazteek fruta eta barazki gutxi jaten dute: 15-24 urte arteko hiru gaztetik bik ez dituzte egunean hiru anoa jaten, ezta 25-44 urte arteko bost heldutik hiruk ere.

## Resumen

Casos y tasas por 100 000 habitantes. **MUJERES**. EDO/SIM. Bizkaia 2013-2018

MUJERES	Casos					2018			
	2013	2014	2015	2016	2017	Casos	Tasa	IE 1	IE 2
<b>Enferm. de transmisión alimentaria</b>									
Botulismo	0	0	0	1	0	0	-	-	-
Campilobacteriosis	314	315	358	354	385	549	92,77	1,43	1,55
Cólera	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Criptosporidiosis	-	-	-	-	23	67	11,32	2,91	-
<i>E. Coli</i> VT	1	0	1	0	1	1	0,17	1,00	1,00
Fiebre tifoidea y paratifoidea	1	0	0	0	0	0	-	-	-
Giardiasis	-	-	-	-	109	118	19,94	-	-
Hepatitis A	14	7	6	2	47	20	3,38	0,43	2,86
Listeriosis	8	7	5	6	8	6	1,01	0,35	0,86
Rotavirus	87	79	136	77	113	81	13,69	0,72	0,93
Salmonelosis	122	158	133	157	194	128	21,63	0,66	0,82
Shigelosis	6	7	0	9	4	8	0,68	2,00	1,33
Triquinosis	0	0	0	0	1	0	-	-	-
Yersiniosis	10	15	19	15	15	19	3,21	1,27	1,27

Casos y tasas por 100 000 habitantes. **HOMBRES** . EDO/SIM. Bizkaia 2013-2018

HOMBRES	Casos					2018			
	2013	2014	2015	2016	2017	Casos	Tasa	IE 1	IE 2
<b>Enferm. de transmisión alimentaria</b>									
Botulismo	0	0	0	0	0	0	-	-	-
Campilobacteriosis	430	380	521	516	424	692	126,08	1,63	1,63
Cólera	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Criptosporidiosis	-	-	-	-	23	73	13,30	3,17	
<i>E. Coli</i> VT	1	0	0	2	1	1	0,18	1,00	1,00
Fiebre tifoidea y paratifoidea	4	1	2	0	1	3	0,55	3,00	3,00
Giardiasis	-	-	-	-	119	166	30,24	1,39	-
Hepatitis A	11	8	4	8	66	37	6,74	0,56	4,62
Listeriosis	11	4	12	14	9	6	1,09	0,35	0,55
Rotavirus	117	98	183	114	117	121	22,05	1,03	1,03
Salmonelosis	158	135	180	198	200	156	28,42	0,78	0,87
Shigelosis	5	19	14	5	8	24	4,37	3,00	3,00
Triquinosis	0	0	0	0	0	1	0,18	-	-
Yersiniosis	12	17	15	12	18	20	1,75	1,11	1,33

Resumen de Vigilancia 2018 - Dpto de Salud. Delegación Territorial de Bizkaia - UVE

([https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/memorias\\_epidemiologica/es\\_def/adjuntos/2018/Bizkaia-2018-Resumen-Vigilancia.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/memorias_epidemiologica/es_def/adjuntos/2018/Bizkaia-2018-Resumen-Vigilancia.pdf))

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefona: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 . [berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)